



## MUSAKOLA IGERILEKUA

### Barne igerilekua -BARNE ARAUDIA

1. Janzkera
2. Dutxa
3. auziak eta jolasak
4. Materiala
5. Jarrera
6. Kale banaketa
7. Bestelakoak
  - 7.1 Adina
  - 7.2 Ikastaroak (ikusleak...)
  - 7.3 Botikina
  - 7.4. Sauna eta kanpo igerilekua
  - 7.5. Erregistroak



## 1. Jantzkeria

AUKEA Zerbitzuei buruzko araudi nagusiak dio, 18. atalak a), b) eta d) azpitaletan, (12.orr):

a) Derrigorrezkoa da aldageletan, pasabideetan eta piszinako egoteko lekuetan txankletak erabiltzea.

b) Derrigorrezkoa da piszina klimatizatueta baino gorro bat jantztea. Baita terapeutika arrazoiengatik oinez ibiltzera datozen erabiltzaileek ere. Ez dago salbuespenik.

c) Piszinen esparruan ezin izango da kaleko arropaz sartu; bainu jantzia eta toailaz bakarrik sartu ahal izango da, eta debekaturik dago poltsez, motxilez e.a. sartzea, kanpoko piszinetara izan ezik, horiekin sartu ahal izango da eta..”

- Debekaturik dago kaleko zapata zein arropekin eremu bustian sartzea.
- Igerilekuetarako diren betaurrekoak onartuko dira, kristalezko betaurrekoak debekaturik daude.
- Bainujantzia gain, neoprenozko jantziak soilik onartuko dira: beste jantzirik ez.
- Bai belarri baita sudur zuloetako tapoiak erabili daitezke.
- Gomendagarria da ordulari, eraztun, lepoko, belarritako, piercing eta bestelako apaingarriak igeri ontzietan ez sartzea.
- Nahitaezkoa da beren premia fisiologikoak kontrolatzeko gai ez diren jaioberri eta premia bereziko herritarrentzat igerilekuetarako pixoihalak erabiltzea.

## 2. Dutxa

AUKEA Zerbitzuei buruzko araudi nagusiak dio, 18.c) atala, (12.orr):

“Piszinen esparruan sartzeko, derrigorrezkoa da aurretik dutxatzea.”

- Dutxa hartzea nahitaezkoa da igeri ontzietara sartu baino lehen (10 segundu). Honela, urak kutsatu ditzaketen larruazal eta ilean dauden xaboi, ukendu, krema eta kosmetikoen arriskua alde batera uzten da.
- Soroslearen mahaia dutxa eremua eta ur putzuetatik ahalik eta gertuen kokatuko da. Eguzki beroa bada, beste aldean kokatuko da sorosle mahaia.



### 3. Jauziak eta jolasak

AUKEA Zerbitzuei buruzko araudi nagusiak dio, 18.e) atala, (12.orr):

“Ez da onartuko gainontzeko erabiltzaileek kaltetzeko moduko ekintzarik, hala nola, jokuak, jauziak, e.a.”

- Debekaturik dauden ekintzak: nasetan korrika egitea, jolasten ibiltzea, jendea uretara botatzea, elkarri bultza egitea ...
- Debekaturik dago uretara edozein lekutik jauzi egitea. Salbuespena: ikastaroetako monitoreak, bera dagoenean, jauzia baimentzea.
- Tranpolinak erabiltzea debekatuta dago. Salbuespena: igeriketa ikastaroetan monitoreak kontrolatzen duenean. Ez erabili ahal izateko, komeni materiala jartzea gainean.

### 4. Materiala

AUKEA Zerbitzuei buruzko araudi nagusiak dio, 18.e) atala, (12.orr):

“Ez da onartuko baltsak, baloiak, koltxonetak edo bestelako objektu pneumatikoak ere, monitore-sokorristaren baimenik gabe”

- Erabiltzaileek ezin dute kanpotik material propiorik ekarri.
- Igerilekuko materiala “a priori” ezin dira erabili, baina sorosle-monitoreak une horretan egoki baderitzo (igerilekua lasai dagoelako) baimendu lezake erabilera:
  - plantxa horia eta gainerako ur-jolas koltxonetak
  - haur txikien materiala (panpinak etab.)
  - pull-boy eta igeriketako palak
  - aletak
  - urpekaritza betaurrekoak
- AUKEAk antolatzen dituen jardueretan edo baimen berezia duten erabiltzaileek materiala erabili ahal izango dute. Adibidez: urpekaritza, igeriketa eta aquagym ikastaroak, LEK ur jolasak...
- Debekaturik dago igerilekuko altzariak behar ez bezala erabiltzea: salbamendu flotagailuak hartu, banderinetatik tira egin, bankuak lekuz aldatu...
- Sorosle-monitoreak eman eta jasoko du materiala dagokion lekuan, txukun ordenatuta.

Sorosleak “Materialaren inbentario-erregistroa” eguneratua izango du eta behar berriak zeintzuk diren idatziko ditu.



## 5. Jarrera:

AUKEA Zerbitzuei buruzko araudi nagusiak dio, 18.g) atala, (12.orr):

“Monitore-sokorrista, piszinako arduraduna izanik, beti errespetatu beharko da, eta piszinan zelan jardun eta jokatu behar den harek adierazitako guztia bete beharko da”

- Udako denboralditik kanpo, segurtasun arrazoiengatik, kanpoko piszinetako esparruan adinez nagusiek bakarrik sartu ahal izango dira; beti ere egokitze eta mantenu lanak eragozten ez badira.
- Erabiltzailea ez da igeri ontzietan sartuko soroslea bertan ez dagoen bitartean.
- Debekaturik dago uretan behar fisiologikoak zein bestelako ekintza antihigienikoak egitea (txua bota, mukiak kendu...)
- Debekaturik dago, zauri ireki, odol jario eta larruazaleko eta uretik igorri daitezkeen gaitz kutsakorrekin bainua hartzea. Zalantzazko egoeretan kirol udal zerbitzuak, beharrezkoak diren osasun ziurtagiriak eskatzeko baimena izango du.
- Erabiltzailearen jarrera desagokiaren aurrean “Barne araudiaren erregistroan” abonatu zenbakia apuntatu eta berau idazkaritzan jakinaraziko du sorosleak.

## 6. Kale banaketa

AUKEA Zerbitzuei buruzko araudi nagusiak dio, 18.h) atala, (12.orr):

“Piszinetako kaleen banaketa egingo du Zuzendaritzak, beharren arabera, eta uneoro bi kale gordeko ditu antolatutako ikastaro eta gainerako ekintzetarako”.

- Igerileku handiaren banaketa (6 kale) honela dago definituta, gradetatik hasita:
  - Kono urdinak: igeriketa motela 2+ 3 + 4 kaleak
  - Kono horiak: igeriketa azkarra 1+ 5 + 6 kaleak.
  - Kono gorriak: ikastaroetarako (behin behinekoak 1 +2)
- 
- Igerileku txikiaren banaketa beharrezkoa denean soilik egingo da. Aukerak 1/3 edo 1/2.
  - Sorosleak erabiltzaile bakoitzaren ezaugarrien arabera, erabiltzaileak kalez aldatu ahalko ditu. Erabiltzailearen ukazio edo jarrera desagokiaren aurrean “Barne araudiaren erregistroan” abonatu zenbakia apuntatu eta berau idazkaritzan jakinarazko du sorosleak.



## 7. Bestelakoak

### 7.1 Adina

AUKEA Zerbitzuei buruzko araudi nagusiak dio, 18.f) atala, (12.orr):

“Gurasoek edo tutoreek lagundurik egon beharko dute 14 urtetik beherako erabiltzaileak; Zuzendaritza ez da arduratuko ardurarik gabe doazen adin txikikoei gerta lekizkiekeen kalteez.”

- Salbuespena: haurrentzako ikastaroak, ikastaro orduetan.

### 7.2 Ikastaroak (ikusleak...)

- Ostiraletan soilik sartu daitezke gradetara guraso eta senideak arratsaldetako ikastaroak ikustera.
- Eskolen igerikela ikastaroetan AUKEAko monitoreak beharrezkoa ikusten duen guztietan (ikaslearen abilezi falta, segurtasuna...) laguntza eskatuko dio ikastetxeari hauek laguntzaile bat ezar dezaten. Ikastetxeek laguntza hau ez badute jartzen, ezingo du ikasleak igerikela saioetan parte hartu.

### 7.3 Botikina eta gertaera parteak

- Sorosleak “Botikineko inbentario-erregistroa” eguneratua izango du eta beharrezkoak diren produktuak apuntatu eta jakinaraziko ditu zuzendaritzan.
- Sorosleak igerileku eremuetan suertatzen diren gertaerak artatuko ditu.
- Gertaera baten aurrean “Sorospen partea” bete beharko da (ikus eranskina).
- Sorosleak ez du igerileku eremuetatik kanpo suertatzen diren gertaerak artatu beharrik.
- Oxigeno bonbona

### 7.4 Sauna eta Kanpo igerilekua

- Aparteko arautegi bat dute. Sorosleek jakin beharrekoak eta beharrezkoa den guztietan erabiltzaileei jakinarazi beharrekoak. (Ikus eranskina)

### 7.5 Erregistroak

Sorosleek erabili eta eguneratuko dituzten erregistroak ondorengo hauek izango dira:

- Gertaeren erregistroa (ikus eranskina):



- Gertaera edo eta argibidea behar dituzten egoerak guztiak idatziko ditu sorosleak.
- Astelehen goizetan erregistroan idatzita dagoena bulegoan jakinaraziko da.
- Materialen inbentario erregistroa:
  - Materialaren Inbentarioa urtean behin eguneratuko da.
  - Konponketak behar dituzten materialen zerrenda egingo da.
  - Behar diren material berrien izenak apuntatuko dira.
  - Bulegoan erregistro honen berri emango da behar den guztietan.
- Sorospen partea
  - Gertaera baten aurrean “Sorospen partea” bete beharko du sorosleak.
  - Urteko sorospen parte guztiak bulegoan entregatu beharko dira.
- Botikineko inbentario-erregistroa:
  - Hileko lehen astean eguneratuko da.
  - Behar diren botikin berrien izenak apuntatu eta bulegoan eskatuko dira.



### BARNE ARAUDIAREN ERREGISTROA

Noiz	Abonatu znb.	Gertaera



**BARNE ARAUDIAREN ERREGISTROA**

Noiz	Abonatu znb.	Gertaera





ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

ERANSKIÑAK

Sauna Araudia  
Gertaeren erregistroa  
Sorospen partea  
Botikineko inbentario erregistroa

**AUKEA** ■  
**Kirol Erakundea** ■  
■